

Laudioko Udala

Alkatetza-udalburutza Arloa

Hileta edota omenaldi zibilak arautzeko udal ordenantza. Aldaketa.

Behin betiko onarpena.

2016ko ekainaren 26an hasierako izaeraz onetsi zen ohiko Osoko Bilkuran hileta edota omenaldi zibilak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketa. Hasierako onespén horri dagokion iragarkia 2017ko urtarrilaren 25eko ALHAOn, 10. zenbakia duenean argitaratu zen, baita Udaletxeko iragarkien taulan ere, eta hogeita hamar egun balioduneko jendaurreko informazio-epea hasi zen, alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurreko informazio-epe hori amaitu denez inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu gabe, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 49. artikulua adierazten du orain arte behin-behinekoa zen erabakia, behin betiko onetsizat jo behar dela. Lege aurreikuspen hori lege-testu beraren 70. artikuluko 2. paragrafoan adierazitakoarekin osatzen da. Aipatu den artikulua oinarri hartuta, hileta edota omenaldi zibilak arautzen dituen udal ordenantza oso-osorik argitaratuko da ALHAOn eta behin testu osoa argitaratuta agertu ostean indarrean sartuko da lege-testu beraren 65.2. artikuluan aurreikusitako hamabost (15) eguneko epea igaro ondoren.

ERANSKINA

Hileta edota omenaldi zibilak arautzeko udal ordenantza.

Hitzaurrea.

Estatu ez-konfesional eta laikoek herritarren erlijio-, ideologia- eta gurtza-askatasuna bermatu behar dute, Legearekin baterako ordena publikoa mantentzeko mugez harago joan beharrik gabe. Edonola ere, gizartean askotariko ideologiak, erlijioak eta kulturak ditugu eta ohituren nahiz usadio sozialen adierazpenak etengabe eraldatzen direnez, babestu beharreko ondasun juridiko, sozial eta kulturala da dibertsitate edo askotarikotasun hori.

Gizarte ororen esparru esanguratsuenetako bat da, hain zuzen ere, zendutakoak agurtzearekin nahiz hileta ohore eta erritoekin erlacionatutako tradizio erlijioso eta sozialena; gurtza askatasunaren adierazle dira eta, horien bitartez, pertsonok bizitzaren mugarekin, alegia, heriotzarekin eta bizitzaren izaera amaikorrarekin egiten dugu topo aurrez aurre.

Gure gizartean, erlijio-federekin lotuta egon izan da eta tenpluez gain, hiletetako ohore eta erritoen tradizio luze bat dute elizek; horiei esker, familiek euren senitarteko zenduak ohoratu ahal izan dituzte. Hala ere, egun bizi dugun gizarte zabal eta pluralistan, badaude iritzi sekulartua duten hiritarrak ere; edozein elizatik kanpo daude eta, beraz, dolumina adierazteko eta senitarteko zituztenei azken agurra emateko espazio duin eta egokirik ezean, hileta-ohoreak nahi bezala bideratzeko eskubidea ez dute bermatuta.

Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratiko batek eskubide eta askatasunen inguruko berme negatiboa emateko aginduaren bidez behartzen ditu botere publikoak jarrera proaktibo hartzera eta, beraz, egiten uzte hutsa ez da nahikoa: botere publikoek benetako berdintasun- eta askatasun-baldintzak sustatu eta bermatu behar dituzte.

Hortaz, bizitzaren amaieraz nork bere barnean dituen pentsamendu erlijioso edota filosofikoak gorabehera, arlo honetan berdintasun egokia sustatzeko, botere publikoek espazioak eskain ditzakete hildakoek merezi dituzten hileta ohoreak, aitormenak eta zeremoniak behar bezalako txukuntasunez eta egokitasunez eman ahal izateko, betiere, eskura dauden baliabideen arabera.

Aurreko guztia kontuan hartuta, ordenantza honek arautzen du Laudio herrian zendutako pertsonak ohoratzeko, komunitateari egin zizkioten ekarpenak aitortzeko edota euren balore etikoak eta gizalegea aintzatesteko ekitaldien baimenen eta gauzatzeen nondik norakoak.

I. Kapitulua. Printzipio orokorrak.

1. Artikulua. Objektua.

Ordenantza honen xedea da Laudio udalerrian hileta edota omenaldi zibilak egiteko aurreikusi diren lokal eta espazioen baimenak eta erabilera arautzea.

2. Artikulua. Eskumena.

Alkate-udalburuak du eskumena hileta edota omenaldi zibilak egiteko aurreikusi diren espazioak erabiltzeko baimena emateko.

3. Artikulua. Hileta edota omenaldi zibilak egiteko espazioak.

1.- Hileta edota omenaldi zibilak egiteko udal espazioak jarraian adierazten dira. Erreserbatu beharko dira, eskuragarri daudela bermatzeko:

a.- Kultura Etxea:

- Lamuza parkeko Etxe Nagusia (Arraño aretoa, lekua 75 pertsonarentzat).
- Zinema txikia (lekua 55 pertsonarentzat)
- 1. aretoa (lekua 100 pertsonarentzat).

b.- Lanbide Heziketako Ikastetxea:

- Lanbide Heziketako Eskolako areto nagusia (lekua 170 pertsonarentzat).

Halaber, eskatzaileak eskura eduki ahal izango ditu udal materialak (aulkiak, mahaiak eta abar), betiere, nahikoa aurretiaz eskatuta eta materialak ez badira erreserbatu beste ekitaldi edota omenaldi baterako. Aipatu den material hori udal langileek ipiniko dute, hala badagokio, eskatzailearen edo berak izendatutako pertsonaren laguntzaz.

2.- Ezin da hileta edo omenaldi zibilen ekitaldirik egin Herriko Plazan dagoen Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, ez bada ezohiko eta aparteko egoeretan.

3.- Adierazi diren udal lekuetan, ezin da inolaz ere gainditu gehienezko pertsona kopurua.

4. Artikulua. Gai, auzi eta arazo orokorrak.

1.- Ezin da hiletarik edota omenaldi zibilik egin gorpua bertan dela, inolako salbuespenik gabe. Edonola ere, kutxa edo anfora batean sartutako errautsak bertan izanda bai, egin ahalko dira.

2.- Ekitaldiek ezingo dute guztira bi ordu baino gehiago iraun.

3.- Eskatera sinatu duena izango da, oro har, legetan ezarritako obligazioak betearazteko arduraduna eta, zehazkiago, ordenantza honetan erabakitakoak betearazteko. Sekula ezin izango zaio egotzi alkate-udalburuari ekitaldia burutzearen ondorioz sortutako kalte edota erantzukizunik.

Halaber, eskatzailearen esku jarritako udal areto edota materialei kalteak eragiten bazaizkie, eskaera sinatu duenak ordaindu beharko ditu.

4.- Eskatzaileak bere kabuz ekarri eta ipini ahalko ditu omenaldirako zerbitzu osagarriak, hala nola, apaingarriak, musika, proiektzioak eta abar; Audio Udalak horiek gainbegiratzeko eskubidea du, baina, betiere, eskatzailearena izango da horien gaineko erantzukizun osoa.

Eskatzaileak behar baldin badu ekitaldia egingo den espazioa era jakin batean atontzea eta egokitzea, aldez aurretik jakinarazi egin behar dio Udalari, baina, edonola ere, erabiltzen den espazioaren ezaugarriak errespetatu beharko dira. Kasu horietan, eskatzailearen kargu izango dira sortutako gastu guztiak, beharrezkoa izan litekeen garbiketa barne.

Edonola ere, Udalak eskatzailearen esku ipiniko du oinarrizko megafonia-sistema bat, betiere, posible denean.

5.- Eskatera aurkezteak inplikutzen du ordenantza fiskalean ezarritako tasa onartzen dela. Ekitaldia burutu aurretik ordaindu beharko da tasa.

6.- Hileta edota omenaldien zibilen ekitaldiak astelehenetik igandera egin ahalko dira, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

7.- Ordenantza honetan aurreikusi gabeko gauza guztietarako, udal arduradunen agindu eta oharbideei jarraituko zaie.

II. Kapituluua. Prozedura.

5. Artikulua. Eskatera.

1.- Eskaera Udaletxean eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera izan ahalko da. Edonola ere, alderdi hauek jaso beharko ditu:

- a) Hileta edota omenaldia egiteko eta udal instalazioak erabiltzeko baimena eskatu duen pertsonaren izena, abizena, helbidea eta identifikazioa.
- b) Zendutako pertsonaren izen-abizenak. Heriotza-ziurtagiria erantsi beharko da.
- c) Ekitaldia egiteko nahi den lekua, eguna eta ordua. Eskatzaileak hiru aukera adierazi ahalko ditu gehienez. Ebazpena adierazitako lehentasun-hurrenkerari lotuko zaio eta, dagokionean, eskaera ukatzen bada alde zuzenetik baimendutako beste ekitaldi bat bertan egoteagatik justifikatuko da.
- d) Ekitaldiak iraungo duen denbora.
- e) Ekitaldiaren azalpen laburra eta, dagokionean, eskatutako udal materiala.
- f) Ekitaldia egiteko ekarri eta ipiniko diren zerbitzu osagarrien deskribapena (apaingarriak, musika, proiektzioak eta abar).
- g) Eskaera aurkezten duenaren egilearen izenpea edota bere borondatea benetakoa dela erakusteko edozein egiaztapen.

2.- Eskaerak ez baditu jasotzen gorago adierazitako datuak, eskatzaileari horiek aurkezteko errekerimendua bidaliko zaio, eskaera aurkeztu zuen egunetik hasita bi egun balioduneko epean. Errekerimendu horretan adieraziko da eskatutako datu horiek aurkezteko gehienezko epea zein den. Epe hori igaro bada eta ez bada errekerimenduan eskatutakoa aurkeztu edo aurkeztu bada, baina ez baditu betetzen aurreko idatzi-zatian exijitutako betebeharrak, eskaera bertan behera utzi duela iritziko zaio.

3.- Omenaldi edota hileta zibilak egiteko baimena lortzeko jarraitu behar den prozeduraren arau nagusia izango da arintasunaren eta eraginkortasunaren printzipioa.

6. Artikulua. Instrukzioa eta ebazpena.

Ebazpena alkate-udalburuaren dekretu bidez hartuko da eta bertan finkatuta utziko da hileta edota omenaldi zibila egingo den lekua, eguna eta ordua, betiere, eskatzaileak eskaeran ezarritako lehentasunarekin bat. Eskaera ukatzen bada, ukatzearen arrazoiak emango dira.

Baldin eta eskaera ezberdinak aurkezten badira hileta edota omenaldi zibilen leku, egun eta ordu berebean, kontuan hartuko da Udalaren sarrera-erregistroan eman zaizkien zenbakien hurrenkera.

Xedapena gehigarria.

Baimena eman zaio Laudio Udaleko alkate-lehendakariari ordenantza honen aplikazioaren kariatarako beharrezko diren jardunak egikaritzeko.

Laudio, 2017ko martxoaren 13a

Alkate-udalburua, Jon Iñaki Urkixo Orueta.